



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Espediente zk.: 2017 IKTO 0004
Azalpena: kale Nagusia 66-72 eraikinetako atzeko saneamendu sarearen berrikuntza proiektuaren 1. fasea gauzatzeko obra-kontratua

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA **ASTIGARRAGAKO KALE NAGUSIKO 66.-72. ZENBAKIE TAKO** **SANEAMENDU-LANAK (KOLEKTOREAREN KONPONKETA)** **KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZ, OHIKO** **IZAPIDETZEAREKIN ETA ESLEITZEKO MODUA LEHIAKETA** **IZANIK.**

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA

Kale Nagusiko 66.-72. zenbakietan dauden eraikinen gunean menditik datorren ura jasotzen duen kolektorearen konponketa-lanak egitea izango du xedetzat agiri honi jarraikiz egiten den kontratuak. Zehazki, kolektore horren lehen fasean egingo dira lanak, eta hargunea (Kale Nagusiko 66.-72. zenbakietako eraikinen atzeko aldea) eta ezpondaren jaitsiera, hormaren atzealdeko kolektorearen tartea eta oinezkoentzako pasealekuraino jaisten den kolektorearen tartea biltzen ditu fase horrek.

Zangarik gabeko teknologiarekin berrituko da kolektorea eta agindu teknikoetan eta Endara Ingenieros Asociados SL sozietateak –udalak eskatuta– idatzitako “Kale Nagusiko 66.-72. zenbakietako eraikinen atzealdea berritzeko proiektua (1. fasea)” deitutako obra-proiektuan bildutako zehaztapenei egokituko zaie lan horien egikaritzapena;

Bi lotetan banatzen da obra:

- 1. lotea.-** Kontratista orokorra. Fabrika-obra berritzea: zorrozten mailakatua, kutxatilik eta erretena.
- 2. lotea-** Kolektorearen konponketa zangarik gabeko teknologiarekin.

2. KLAUSULA.- KONTRATUAREN PREZIOA

Obraren **zenbateko totala 50.819,30** euro da (prezio horrek ez du BEZa barnean hartzen), eta zenbateko horretatik **23.975,42 euro** (prezio horrek ere ez du BEZa barnean hartzen) **1. loteari** dagozkio eta **26.843,88 euro** (kasu



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

honetan ere BEZik gabe) **2. loteari**. Hau da, lizitazio-prezioak honako hauek dira:

- 1. lotea: 23.975,42 euro** (BEZa gabeko prezioa)
- 2. lotea: 26.843,88 euro** (BEZa gabeko prezioa)

Lizitatuzaileek beherantz hobe ditzakete zenbateko horiek. Eta proiektuan deskribatutako segurtasun- eta osasun-kostuak daude bilduta zenbateko horietan, baita hondakinen kudeaketari eta kalitate-kontrolari buruzkoak ere.

3. KLAUSULA.- FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurrekontu-izendapen egokia eta nahikoa aurreikusita dago, kontusail hauean:

1 0500.601.01.153.24.2016

1 0500.601.01.153.24.2017

4. KLAUSULA.- PREZIO BERRIKUSKAPENA

Proiektuko obrak egiteko epearen arabera, ez dagokio prezio berrikuspenik.

5. KLAUSULA.- ORDAINKETA ERA

Proiektuko dokumentuen eta, hala badagokio, obra-zuzendariak idatziz emandako aginduen arabera egiten dituen obrak bakarrik ordainduko zaizkio kontratistari. Ondorioz, proiektuan kontsignatu gabe egonik egiten dituen obra-unitateen kopuruak ez du balioko inolako erreklamaziorik egiteko oinarri gisa.

Kontratuaren zenbatekoa ordainketa bakar batean ordainduko da. Ordainketak, dagokion faktura eta ziurtagiria bulego orokorrean telematikoko aurkeztu eta 30 eguneko epean egingo dira.

6. KLAUSULA.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Lote bakoitza gauzatzeko ezartzen den gehienezko epea hau da:

1. lotea: hilabete
2. Lotea: 15 egun.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Kontratuaren iraupenak kontratuaren betebeharrak izatera du eta ez betetzeagatik zigorrak ezarriko dira.

7. KLAUSULA.- BERMEAK

Bermeak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 95 eta 103 bitarteko artikuluetan jasotako baldintza eta xedapenen arabera jarriko dira (aurrerantzean SPKLTB).

Behin-behineko bermea: Lizitazio honetan parte hartzeko, ez da behin-behineko bermea jartzerik eskatzen.

Behin betiko bermea: Hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipendunak esleipen-kopuruaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du, Balio Erantsiaren Gaineko Zergarik gabe.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, Udal Diruzaintzan jarri behar da; eskudirutan jarriko da edo SPKLTBren 96. artikuluan xedatzen den edozein baliabide erabiliz.

Bermeak itzultzeko, SPKLTBren 102. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta bermearen epea igaro ondoren antolatuko da, beti ere erantzukizunik ez badago.

8. KLAUSULA.- ENPRESA LIZITATZAILEAK: GAITASUNA ETA SAILKAPENA.

1.- Administrazioarekin kontratuak egin ditzakete, nahiz pertsona naturalek nahiz juridikoek, espainolek nahiz atzerritarrek, baldin jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeke debekurik ez badute, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala dutela egiaztatzen badute, eta S SPKLTBek sailkapen jakin bat eskatzen duenean, sailkapen horren jabe badira.

Proposamenak aurkezteko epearen amaiera egunean, lizitatzailak ez dute izango SPKLTBk 60. artikuluan aurreikusitako kontratatzeke debekurik. Kontratatzeke debekurik ez dute izango, ezta ere, kontratua behin betiko esleitzeko garaian.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Enpresek, horretaz gainera, kontratuaren xede den jarduera edo lana egiteko eskatzen zaien enpresa edo lanbide mailako gaikuntza izan behar dute.

2.- Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izateko, beharrezkoa dute, estatutuen edo sortze arauen arabera, kontratuko eginbeharrak beren jardueraren xede, gai edo esparrukoak izatea.

3.- Era berean, Administrazioak aldi baterako eratzen diren enpresa batasunekin kontratuak egin ditzake, eta ez da beharrezkoa izango kontratua esleitu arte enpresa batasunaren eskritura egina egotea.

4.- Europako Erkidegokoak ez diren enpresek parte hartzeko, Sektore SPKLTBren 55. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

5.- Kontratuaren ezaugarri teknikoak prestatzen parte hartu duten enpresak ezingo dira sartu lizitazioan, parte-hartze horrek lehia askeari kalte egin badiezaioke edo lizitazioan, beti ere, sartzen diren beste enpresen aldean faborezko tratua badakarkie.

6.- Objektuaren xede diren lote bakoitzeko obrak nolakoak diren ikusita, SPKLTBren 65. Artikuluan xedatutako jarraiki, obra hau gauzatzeko enpresak ez dute sailkapenik behar, hori bai, jarraian adierazitako sailkapena duten enpresei, kaudimen teknikoa egiaztatutzat emango zaie:

1. lotea:	C taldea	2 azpitaldea	“a” kategoria
2. lotea:	E taldea	4 azpitaldea	“b” kategoria

Sailkapen hori ez duten enpresek, ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatu ahal izango dute (bai 1. lotekoak, bai 2. lotekoak) finantza-erakundeen aitortzen bidez; edo 100.000 euro edo gehiagoko arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguruia daukala adierazten duen egiaztagiraren bitartez

Kaudimen teknikoa edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzeko, berriz, (bai 1. lotekoak, bai 2. lotekoak) enpresak azken hamar urteetan (2007-2016 epealdian) antzeko 5 obra egin direla justifikatu beharko du. Obra bakoitzaren zenbatekoa 40.000 euro edo zenbateko handiagokoa izan behar du.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

9. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK, AURKEZTEKO EPEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Kontratazio honen espedientea eta espediente horri lotutako dokumentazio teknikoa Udal honen webgunean (www.astigarraga.eus) edo Udal honetako Idazkaritza Sailean (09:00etatik 13:30era) aztertu ahal izango da lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Enpresek beren proposamenak aurkeztuko dituzte lote bakoitzerako. Bi loteetarako eskaintzak aurkeztu ahalko dira –betiere modu independentean– soil-soilik enpresak lote bakoitzerako ahalmena duenean (hau da, enpresek sailkapen edo kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko/profesionala dutenean).

Proposamenak kontratazioa@astigarraga.eus helbide elektronikora igorriko dira **26 eguneko epean**, aipatutako iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN agertzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte isil-gordea ziurtatzeko. Enpresak eskaintza aurkezten duenean, inolako baldintzarik eta salbuespenik gabe oso-osorik onartzen ditu Baldintza Administratibo Berezien Agiria eta Ezaugarri Teknikoen Agiria.

Lizitatuzaile bakoitzak – lote bakoitzeko – eskaintza bakarra aurkez dezake. Lizitatuzaile bat bakarka aurkeztu bada, ezingo da beste batzuekin aldi baterako enpresa batasunean elkartuta aurkeztu, ezta lizitazioan parte hartzen duten enpresa batasun batean baino gehiagotan sartuta egon ere. Norbaitek arau horiek urratzen baditu, hark izenpetutako eskaintza guztiak lizitaziotik kanpo utziko dira.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatuzaileek honako dokumentazio honen arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

A GUTUN-AZALA	KONTRATATZEKO AHALMENA/GAITASUNA ETA KAUDIMENA
B GUTUN-AZALA	GAUZATZEKO/EGIKARITZEKO MODUA
C GUTUN-AZALA	ESKAINZA EKONOMIKOA



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Posta elektronikoz bidez igorri beharreko dokumentazioan pdf diskriminatuen bitartez txertatuko da dokumentazioa, aurkeztu behar den dokumentu bakoitza pdf bakar batean bilduko da; horretarako kontuan hartu, pdf bakoitzaren edukiera 9 megakoa dela. Pdf dokumentuak edukiera handiagoa badu, beste pdf batean igorriko da. Hodeira (Dropbox, Wetransfer, edo antzekoak) igotako informaziorik ez da onartuko.

Posta elektronikoko mezuari dagokionez, ezinbestekoa da GAIA eremuan honako hau zehaztuta azaltzea: LEHIAKETA, ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOA, PDF-N IGORRI BEHARREKO DOKUMENTUARI DAGOKION GUTUN-AZALA ETA DAGOKION pdf DOKUMENTUA; hori guztia igorritako dokumentazioa Udalak behar bezala identifikatu ahal izateko.

(Adibidez: KALE NAGUSIKO SANEAMENDUA ... ZKIKO LOTEA- XXX enpresa – A gutun-azala)

Lote bat baino gehiagora aurkezten diren enpresek A gutun-azal bat, B gutun-azal bat eta C gutun-azal bat aurkeztu beharko dute lote bakoitzerako.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

A GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

“KONTRATATZEKO AHALMENA/GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izeneko “A” gutunazalean honako dokumentu hauek sartuko dira:

1).- Pertsona fisikoak edo juridikoak:

1.1.- NAN, IFK

1.2.- Kontratazio honetarako harremanetan jartzeko helbide elektronikoa eta gaitutako pertsonaren izen-abizenak.

1.3.- Enpresa pertsona juridikoa bada: Enpresaren eratze-eskriturak eta enpresaren xedea egiaztatzen duten estatutuak

1.4.- Espainiaz kanpoko enpresak badira, Europar Batasuneko kide edo Europar Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioaren sinatzaile den estaturen batekoak, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 9. artikuluari jarraituz egiaztatu behar dute.

1.5.- Espainiaz kanpoko gainerako enpresek Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 10. artikuluari jarraituz egiaztatu behar dute; horrelako enpresek Espainian sukurtsala eduki behar dute, eragiketarako ahaldun edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan izena emana eduki behar dute.

1.6.-Beste norbaiten izenean agertu edo eskaintzak sinatzen dituztenek (berdin dio pertsona fisiko edo juridikoa izatea) nortasun-agiriaren edo horren ordezkariaren baten kopia aurkeztu behar dute, eta behar adinako ahalordea dutela egiaztatu.

2).- Kontratatzeko ahalmena (I. erankina)

2.1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarrita dauden debekurik ez duela adierazten duen aitortpena.

2.2.- Borondatezko konkurtsoa eskatu ez dutela, edozein prozeduratan ez direla kaudimengabetzat hartu eta konkurtso-egoeran ez daudela adierazten duen aitortpena.

Deklarazio horiek I. eranskinean agertzen den eredura zehatz-mehatz egokitu behar dira.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

3). Ekonomia eta finantza-kaudimena eta Kaudimen teknikoa edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzea

3.1.- 1go LOTE edo ZATIra aurkezten diren enpresak (kontratista orokorra)

3.1.a.- Sailkapenaren bidez egiaztatzea

SPKLTBren 65. Artikuluan xedatutako jarraikiz, obra hau gauzatzeko enpresak sailkapenik behar ez arren, jarraian adierazitako sailkapena duten enpresei kaudimen teknikoa egiaztatutzat emango zaie:

C taldea

2azpitaldea

“a” kategoria

Enpresa sailkapenaren zain baldin badago, sailkatzeko eskaera egin duela egiaztatu behar du, eta gero, agiri honen 11. klausulan aurreikusita dagoen dokumentazioko akatsak edo hutsuneak zuzentzeko epean, eskatzen den sailkapena lortu duela frogatu beharko du.

3.1.b.- Sailkapena ez dute enpresen egiaztapena

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatu ahal izango da finantza-erakundearen aitortzen edo, 100.000 euro edo gehiagoko arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguruak daukala adierazten duen egiaztagirien bitartez.

Kaudimen teknikoa edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzeko, berriz, enpresak azken hamar urteetan (2007-2016 epealdian) antzeko 5 obra egin direla justifikatu beharko du, administrazio publikoen ziurtagirien bidez –obra publikoa denean– eta obra amaierako ziurtagiri eta fakturen bidez, edo obra egin duela egiaztatzen duen beste edozein agiriren bidez –obra pribatua denean–.

Obra bakoitzaren zenbatekoa 40.000 euro edo zenbateko handiagokoa izan behar du.

3.1.c.- Kaudimen teknikoa edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzea, aurkezten diren atzerriko enpresentzako:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Atzerriko enpresek aurreko atalean adierazitako ekonomia- eta finantza-kaudimena eta Kaudimen teknikoa edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzeaz gain, jarraian adierazitako kaudimen teknikoa egiaztatu beharko du, SPKLTBk 64. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresek eskaintzan egiaztatu behar dute kontratuan bitarteko hauek jarriko dituztela:

Obrarako izendatutako LANGILEAK eta laguntza teknikoak: Atal honetan ondorengoak sartuko dira:

- Izenez aipatu behar dira obretan lan egingo duten teknikariak; gainera, haien kualifikazio eta esperientzia profesionala adierazi behar da, eta lan hauei emango dieten dedikazioa –osoa, partziala edo aholkularitzakoa- eta proiektua gauzatu bitartean non biziko diren adierazi behar da.
- Azaldu beharko da nor izendatu den kontratistaren ordezkari, eginkizun horretan dedikazio osoz jarduteko. Eginkizun horretarako nahitaez **obra zibileko ingeniariatzako** titulazioarekin izendatu behar da, eta baldintza hauek bete behar ditu: kontratua gauzatzen den bitartean obra lekuan bizi behar da, obraren garrantziari dagokion tamainako esperientzia izan behar du, eta obra buru izango da.

BALIABIDE MATERIALAK. Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabide materialak atxikitze konpromisoa, baliabideen zerrenda bat aurkeztu behar izanik.

3.2.- 2. LOTE edo ZATIra aurkezten diren enpresak (hodia konpontzea zuloa egin gabe)

3.2.a.- Sailkapenaren bidez egiaztatzea

SPKLTBren 65. Artikuluan xedatutako jarraikiz , obra hau gauzatzeko enpresak sailkapenik behar ez arren, jarraian adierazitako sailkapena duten enpresei kaudimen teknikoa egiaztatutzat emango zaie:

E taldea 4 azpitaldea “b” kategoria

Enpresa sailkapenaren zain baldin badago, sailkatzeko eskaera egin duela egiaztatu behar du, eta gero, agiri honen 11. klausulan aurreikusita dagoen dokumentazioko akatsak edo hutsuneak zuzentzeko epean, eskatzen den sailkapena lortu duela frogatu beharko du.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

3.2.b.- Sailkapena ez dute enpresen egiaztapena

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatu ahal izango da finantza-erakundearen aitortzen edo, 100.000 euro edo gehiagoko arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguruak daukara adierazten duen egiaztapenaren bitartez.

Kaudimen tekniko edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzeke, berriz, enpresak azken hamar urteetan (2007-2016 epealdian) antzeko 5 obra egin direla justifikatu beharko du, administrazio publikoen ziurtagirien bidez –obra publikoa denean– eta obra amaierako ziurtagiri eta fakturen bidez, edo obra egin duela egiaztatzen duen beste edozein agiriren bidez –obra pribatua denean–.

Obra bakoitzaren zenbatekoa 40.000 euro edo zenbateko handiagokoa izan behar du.

3.2.c.- Kaudimen tekniko edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzea, aurkezten diren atzerriko enpresentzako:

Atzerriko enpresek aurreko atalean adierazitako ekonomia- eta finantza-kaudimena eta Kaudimen tekniko edo lanbide-arloko kaudimena egiaztatzeaz gain, jarraian adierazitako kaudimen tekniko egiaztatu beharko du, SPKLTBk 64. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresek eskaintzan egiaztatu behar dute kontratuan bitarteko hauek jarriko dituztela:

Obrarako izendatutako LANGILEAK eta laguntza teknikoak: Atal honetan ondorengoak sartuko dira:

- Izenez aipatu behar dira obratan lan egingo duten teknikariak; gainera, haien kualifikazio eta esperientzia profesionala adierazi behar da, eta lan hauei emango dieten dedikazioa –osoa, partziala edo aholkularitzakoa– eta proiektua gauzatu bitartean non biziko diren adierazi behar da.
- Azaldu beharko da nor izendatu den kontratistaren ordezkari, eginkizun horretan dedikazio osoz jarduteko. Eginkizun horretarako nahitaez **obra zibileko ingeniarietako** titulazioarekin izendatu behar da, eta baldintza hauek bete behar ditu: kontratua gauzatzen den bitartean obra lekuan bizi behar da, obraren garrantziari dagokion tamainako esperientzia izan behar du, eta obra buru izango da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

BALIABIDE MATERIALAK. Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabide materialak atxikitze konpromisoa, baliabideen zerrenda bat aurkeztu behar izanik.

3.3.- Proposamena **aldi baterako eratzen den enpresa batasun** baten ize-
nean aurkeztu denean SPKLTBrren 59.4 eta 67.5 artikuluetan araututakoa
bete beharko da.

**Administrazioarekin kontratatze eskatutako gaitasun eta kaudimen
eskakizunak betetzen direla frogatzeko une erabakigarria proposamenak
aurkezteko epearen amaiera izango da.**

4. Hizkuntza-baldintza

**Lizitatuzaileek ez dute hizkuntzaren erabilera sexistarik egingo
proposamenak prestatzerakoan eta lantzerakoan.**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 6. artikuluari jarraiki,
euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, Euskal
Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik,
erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta
lan-hizkuntza izango da. Gainera, 2014ko otsailaren 27ko udal osoko bilkurak
Astigarragako Udaleko hizkuntza-irizpideak eta erabilera plana onartu zuen, eta
bertan, administrazioa honen lan-hizkuntza euskara dela jaso zen.

Hori dela eta, obra gauzatzeko esleipendunarekin sinatu beharreko kontratua,
euskara hutsean idatziko da, eta gaztelaniara itzuliko da, bakarrik enpresa
esleipendunak horretarako eskaera – idatziz – aurkeztuz gero.

Lizitazioan parte-hartzeko proposamenak erkidegoko edozein hizkuntza
ofizialetan aurkeztu daitezke.

5.- Aldi batetarako sortutako enpresak.

Enpresa guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztu
beharko da, bertan adieraziz sinatu duten enpresen izenak eta zirkunstantziak,
esleipendunak izanez gero aldi baterako elkartean modu formalean eratzeko
konpromisoa hartzen dutela, enpresa bakoitzak aldi baterako elkarte horretan
izango duen partaidetza, eta kontratuaren indarraldian enpresa guztiak
administrazioan erabat ordezkatzeko izendatu duten pertsona.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

6.- Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztuko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegiaren mende jarriz beren burua eta, hala dagokionean, lizitatuazaleari atzerrian egokitu dakioken jurisdikzio foruari uko eginez.

Europar Batasunetik kanpoko enpresek egiaztatu behar dute Espainian sukurtsala zabalik dutela, eragiketetarako ahalduen edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda.

Enpresa horiek aurkeztuko duten dokumentazioak ofizialki gaztelerara eta euskarara itzulita egon beharko du, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7).- Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasun Publikoarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzea

Gizarte-segurantzari eta foru-ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztuko dira. Egiaztagiri horiek enpresak berak edo administrazio eskudunek jaulki ditzakete; lehendabiziko kasuan ezinbestekoa izango da esleipena egin baino lehen baldintza hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea.

8).- Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen

9) Lizitatuzaileen agiri eta datu konfidentzialak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 140. artikuluan xedatzen duen modura, lizitatuzaileek adierazi behar dute zein agiri administratibo eta tekniko eta zer datu hartu behar diren konfidentzialtzat, hartu beharrekorik badago, eta adierazpen osagarri batean azalduko dute hori.

Konfidentzialtzat jotako agirian bertan ere argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori (gainean, orri-ertzean, edo beste edonola). Lizitatuzaileek aurkeztutako agiri eta datuak konfidentzialtzat hartu ahal izango dira, horien berri hirugarren bati emateak enpresaren merkataritza interes legitimoen kontra egin dezakeenean, alor bereko enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean edo Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako debekuak urratzen dituenean. Adierazpen hori egiten ez bada, ulertuko da aurkeztutako agiri edo datu guztiak edo batzuk, ezaugarrien arabera, ez direla konfidentzialak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

B GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

“GAUZATZEKO MODUA” izeneko “**B**” gutun-azalean honako dokumentu hauek sartuko dira (bai 1. lote edo zatian parte hartzeko, bai 2. lote edo zatian hartzeko):

B.1. Kontratazio honen xede den proiektuan jasotako obra guztiak, baldintza pleguetan jasotako epeetan egingo direla adierazten duen kontratistaren konpromisoa.

B.2.- Lanak egikaritzeko moduaren eta erabili beharreko bitartekoaren deskribapena, planinga ere barnean hartuta, baita bi loteetako lanak koordinatzeko modua ere.

Horri dagokionez, nabarmentzekoa da Endara Ingenieros Asociados SL sozietateak landutako obra-proiektuan ageri den Baldintzen Agiri Teknikoaren 2. artikuluan zerrendatutako Arau eta Jarraibideetan zehaztutako baldintzak beteko dituztela obra-unitate guztiek.

B.3.- Azken bost urteetan egindako lan nagusien zerrenda, haien zenbatekoa, datak eta onuradun publikoa nahiz pribatua adieraziz. Egindako lanak organo eskudunak jaulkitako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, eta hartzailea erosle pribatu bat denean berak jaulkitako ziurtagiri baten bitartez, eta ziurtagiri hori ez badu, enpresaburuaren aitorten baten bitartez.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

C GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Hitzez eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean alderik izanez gero, baldin eta eskaintzen den prezioa benetan zein den ezin bada argi ikusi, eskaintza baztertu egingo da.

Eskaintza enpresa talde batek egina denean, taldeko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkariaren bitartez.

Proposamen ekonomikoa idatzi behar da II. Eranskinean jasotzen den eredia jarraiki.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

10. KLAUSULA.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratua PROZEDURA IREKIAREN bidez esleituko da irizpide-aniztasunaren bitartez, eta esleitzeko modua lehiaketa izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 138.2, 150.1 eta 3, eta 157tik 161era bitarteko artikulua aplikatuz, legezko testu horretan ezarritako termino eta baldintzen arabera.

Lehiaketaren esleipena egiterakoan, lote bakoitzean, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat (garrantzi eta haztapenaren arabera ordenatuta adierazten dira):

	<u>Lehiaketan egingo den balioespena</u>	<u>Puntuak</u>	<u>Egiazta-tzeko erabili den gutun-azala</u>
1º	Proposamen ekonomikoa	0-60	C
2º	Lana gauzatzeko era, baliabide materialak eta plangintza	0-25	B
3	Antzeko lanetan edukitako eskarmentua	0-15	B

1) Proposamen ekonomikoa, 60 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).

P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

$$P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max})$$

(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoak, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-ekaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Eskaintza alternatiboak baleude —hau da, aurrekontua aldatzen dutenak eta baztertzekotzat hartzen ez direnak—, aurrekontu alternatiboaren arabera kalkulatu da bajaren ehunekoak, eta zenbaki horrekin sartuko da oinarri-
eskaintzentzako puntu-banaketan, baldin eta aurrekontu alternatiboa lizitazioaren aurrekontua baino txikiagoa bada. Aurrekontu alternatiboak lizitazioaren aurrekontua gainditzen badu, lizitazio motaren arabera egindako eskaintza ekonomikoari dagokion bajarekin sartuko da puntu-banaketan. Oinarri-
eskaintzen baja maximoa gainditzen duten aurrekontu alternatiboek puntuazio maximoa jasoko dute.

Hasiera batean, **neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, % 10 baino txikiagoak direnak.

Neurritzko kanpokoa edo ezohikoa dela jo daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, entzunaldia eman beharko zaio hura aurkeztu duen lizitatuileari, eskaintzaren balorazioa azal dezan eta haren baldintzak zehatz ditzan, bereziki, ondorengo gaiei dagokienez: kontratuaren exekuzio prozesuak ahalbidetzen duen aurrezteak, onartutako irtenbide teknikoak eta prestazioa betetzeko dituen aldeko aparteko baldintzak,

Lizitatuileak emandako azalpenak eta aurreko paragrafoan aipatutako txostenak ikusirik, kontratazio organoak uste badu ezohiko edo neurritz kanpoko balioak direla-eta eskaintza hori beteezina dela, orduan, Administrazioaren iritziz ongi gauzatuko diren eta ezohikoak edo neurritz kanpokoak ez diren proposamenen artean, sailkapen ordenari jarraituz, ekonomikoki onena den hurrengo proposamenari egingo dio esleipena.

Balioetsitako eskaintzen artean berdinketa badago, kontratuak esleitzeko garaian lehentasuna emango zaie beren kaudimen teknikoa egiaztatzen dutenean beren plantillan desgaitasuna duten langileen kopurua % 2tik gorakoa duten enpresei, betiere proposamen horiek proposamen merkeen berdinak badira terminoei dagokienez, esleipena gauzatzeko oinarri gisa erabiliko diren irizpideen ikuspegitik.

11. KLAUSULA.- KONTRATAZIO MAHAIA, DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio Mahaia osatuko duten kideak honako hauek izango dira:

- Lehendakaria: Jon Arregi eta ordezkoa, Zorione Etxezarraga Ortuondo.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- Bokalak:

Andoni Gartzia eta ordezkoa, Ione Olatziregi
Mikel Duran.
Udal idazkaria
Udal kontu-hartzailea

- Idazkaria: udaleko funtzionario bat.

Ahokulari gisa, udal arkitekto teknikoak hartuko du parte,

A eta B gutun-azaletako dokumentazioaren kalifikazioa

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-prozedura honetan zehaztutako posta elektronikoa telematikoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko da, eta jasotako dokumentazio guztia, lote bakoitzeko A eta B gutun-azalei dagokiena, erkatuko da.

Erkatzea gauzatutakoan, lote bakoitzeko A eta B gutun-azalak idazkariari eta arkitekto teknikoari igorriko zaizkie, hurrenez hurren, dagozkion txostenak emateko, eta erkatzean akats materialak daudela edo informazio osagarria behar dela ikusten bada, hiru egun balioduneko epea emango da horiek konpontzeko. **Epea hori korreo elektronikoz jakinaraziko da lizitazioa honetarako adierazitako harremanetarako helbidean, eta eman ez bada, A gutunazala bidaltzeko erabilitakoan; eta epea kontaktzen hasiko da mezua bidali eta hurrengo egunean.**

Horretarako emandako epean enpresak A gutunazaleko gabeziak osatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ezean, prozesutik baztertuko zaio.

Lizitazaileraren batek ez badu aurkezten B gutunazalean eskatutako dokumentazioa guztia, edo aurkezten duen dokumentazioak ez baditu betetzen eskakizun guztiak, orduan, dagokion irizpidearen arabera baloraziorik ez zaio egingo lizitazaileraren horren eskaintzari.

Txostenak amaitutakoan, Kontratazio Mahaia deituko da txostenak eta egindako kalifikazioa baliozkotzeko.

C gutun-azalean sartutako eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoa.

Lote bakoitzeko A eta B gutun-azaletako dokumentuak kalifikatzen bukatutakoan, eta kalifikazio horiek balioetsi ostean, Mahaia kontratistei deialdia egingo die lote bakoitzeko *Eskaintza ekonomikoa* izeneko C gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikora bertaratzeko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Aurretik, eskaintza ekonomikoak ireki baino 5 minutu lehenago, eskaintza egiten dutenek eskaintzen duten eskaintza ekonomikoa azaltzen den posta elektronikoko mezua irekitzeko kodearen berri eman behar diote Mahaiari.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak kontratua esleitu behar duen kontratazio-organoari aurkeztuko dio lote bakoitzeko proposamena, kasu honetan kontrataziorako zinegotzi delegatuari.

Kontratazio-mahaiak egiten duen esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako enpresaburuaren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratutako administrazioari dagokionez, kontratazio-organoaren erabakiz kontratua esleitzen ez zaion bitartean.

Esleipena egin baino lehen kontratazio-organoak kontratua sinatzeari uko egiten badio edota prozeduran atzera egitea erabakitzen badu, lizitatzaleei ebazpen arrazoitua bidaltzeko jakinarazpenean lizitazio-gastuengatik ordainduko den konpentsazioa adieraziko du.

12. KLAUSULA.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio-mahaiak kontratua oro har – lote bakoitzerako – eskaintzarik onuragarriena aurkezten duen lizitatzaleari esleitzea proposatuko du, edo lizitazioa huts deklaratu du esleipen-irizpide objektiboen arabera proposamen onargarri bakar bat ere ez dagoenean.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 161. artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipena gehienez 2 hilabeteko epean egingo da, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Lote bakoitzeko esleipena posta elektronikoko mezu bidez jakinaraziko zaio eskaintza hobereana aurkeztu duen lizitatzaleari, eta hark honako jardun hauek egin beharko ditu 10 lanegun balioduneko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita:

- Behin betiko bermea jartzea.
- Zerga-betebeharrak (probintziakoak eta estatukoak) eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituela egiaztatzea, dagokien erakundeek emandako ziurtagirien bitartez.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- Esleipeduna enpresa talde bat izango balitz, legalki aldi baterako enpresa bezala eratu dela egiaztatzea, eta IFK aurkeztea.

Halaber, Astigarragako Udalak kontratua esleitu aurretik egiaztatuko du ofizioz kontratuaren esleipendunak izango diren enpresa guztiek Udal honekiko zerga-alorreko betebeharrak betetzen dituztela.

Kontratua eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitzaileari ezin bazaio esleitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 151.2 artikuluan xedatzen duenari jarraituz, eskatutakoa behar bezala bete ez duelako, lizitzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta hala bada, eskaintzen sailkapen hurrenkeraren arabera hurrengo geratu den lizitzaileari dokumentazio bera aurkezteko eskatuko zaio.

Kontratua 10 eguneko epean formalizatuko da, behin betiko esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Esleipena posta elektronikoko mezu bidez soilik gauzatuko da.

13. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren betearazpena kontratistaren ardurapean eta kontura egingo da, eta ez du kalte-ordainetarako eskubiderik izango eragindako galerak, matxurak edo kalteak direla-eta, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Nolanahi ere, obra Agiri honetan, Agiriari lotutako zehaztapan teknikoetan, eta eranskinetan eta obra proiektuan ezarritako klausulei, zorrotz jarraiki egingo da, baita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta gainerako arauzko xedapenetan ezarritakoari jarraiki ere.

Kontratatik beste norbaitekin hitzartu dezake lanaren zati bat hark egitea. Enpresa esleipendunak hirugarrenekin azpikontratutako zatiak edo zatiek ezingo dute gainditu kontratuaren 20a.

Azpikontratuak egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 227. artikuluko 2. atalak xedatutakoa bete beharko da, eta Astigarragako Udaleko baimena eduki.

Enpresak kontratistak, gainera, honako betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Enpresa kontratistak azpikontratazio prozesuan bete egin beharko ditu eraikuntzaren arloan azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legeak eta lege hori garatzen duen 1109/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa; baita laneko



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden arauak ere, eta azpikontratista orori ere araudi hori betearaziko dio.

b) Enpresa kontratistak Azpikontratazio Liburua eduki beharko du, eta liburu hori eskura egongo da obran esku hartzen duten eragile guztientzat. Gainera, Azpikontratazio Liburuan egindako anotazio guztiak segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari jakinarazi beharko dio.

c) Enpresa kontratistak egiaztatu behar du, azpikontratutako jarduerari ekin aurretik, azpikontratutako enpresetako langileen Gizarte Segurantzako alta eta afiliazioa, eta kontratazio organoari jakinarazi behar dio.

d) Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeke ezgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 60. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren arabekoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10.

14. KLAUSULA.- ZUINKETA EGIAZTATZEA

Obra kontratua gauzatzen hasteko, zuinketa egiaztatzeko akta egingo da kontratua sinatu ondoren hamabost laneguko epean gehienez ere, aparteko arrazoiak dauden kasuetan izan ezik.

Obren zuinketa egiaztatzea esleipendunaren edo haren ordezkariaren aurrean egingo da, legezko eskakizunak eta ondorioak kontuan hartuta, zehazki SPKLTBren 126 eta 229. artikuluetan eta Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 139, 140 eta 141. artikuluan aurreikusitakoak.

15. KLAUSULA.- KLAUSULA.- LANEN PROGRAMA

Esleipendunak lanen programa bat aurkeztu beharko du, kontratatzeke eskumena duen organuak onar ditzan. Lanen programa onartu ondoren kontratuari erantsiko zaio.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Lan-programa honako epe honen barruan aurkeztu beharko da: 15 egun Eta Administrazio Publikoen Kontratazio Erregelamenduaren 144. artikuluan eskatzen diren datuak bildu beharko ditu.

16. KLAUSULA.- PROIEKTUA INTERPRETATZEA

Obra-zuzendariari eta, hala dagokionean, kontratuaren erantzuleari dagokie, euren hurrenez hurreneko eskumenen eremuan, proiektuaren interpretazio teknikoa egitea eta hura garatzeko aginduak emateko ahalmena.

Kontratatistak ezingo du argudiatu, inolako kasutan, proiektuaren zehaztasunik eza. Bere ustez zehaztasunik ezaren bat izango balu, obraren zuzendariari idatziz eskatu beharko dio dagokion zehaztasuna ematea obra hasi baino nahikoa aurrerapenarekin, eta obra-zuzendariak hilabeteko epearen barruan erantzun beharko dio eskaerari.

17. KLAUSULA.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Kontratatistak 15 laneguneko epean, kontratua behin betiko izaeraz esleitzen den unetik kontatzen hasita, Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztuko dio kontratatzeke eskumena duen organoari.

Plana, eraikuntza obretan segurtasun eta osasun alorreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak 7. artikuluan agindutakoaren arabera prestatuko da. Segurtasun eta osasun planak ezingo du aldaketarik sartu kontratuaren baldintzetan eta, besteak beste, aurreikusitako azpikontratuak zehaztu beharko ditu.

Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duen 31/2006 Legea garatzen duen 1109/2007 Errege Dekretuaren 16.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatistak Azpikontratazio Liburuan idatzitako azpikontratazio bakoitzaren berri eman beharko dio segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

18. KLAUSULA.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK

1. Lote bakoitzeko kontratua esleitzen zaion enpresak edo aldi baterako enpresa batasunak kontratuan aurreikusitako epeetan burutu eta eman beharko dizkio Astigarragako Udalari proiektatutako lanak.
2. Obrak egiterakoan, zorrotz jarraitu behar zaie proiektuari eta baldintzen eta ezaugarrien agiriei, aplikagarriak diren arau orokorreari eta kontratatutako lanen izaeragatik dagozkion arau teknikoari, bai eta proiektua interpretatuz obra zuzendaritzak kontratistari eman diezazkiokeen jarraibideei. Jarraibideak ahoz ematen direnean, alderdiak lotuko badituzte, idatziz berretsi behar dira ahalik eta azkarren.
3. Kontratua kontratistaren arrisku eta benturan gauzatuko da, eta kontratistak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik jasotzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 231. artikuluan xedatutako kontuan hartuta.
4. Enpresa kontratistek izango dute proiektuan aurreikusitako lanak zuzen garatu eta egitearen ardura, obrak behar bezala bukatu arte.
5. Obrak gauzatzen diren bitartean eta berme epea bete artean, enpresa kontratistek izango dute antzeman daitezkeen akatsen erantzukizuna.

Administrazioaren iritziz obraren zatiren bat gaizki egin bada, kontratistak berriro egin beharko du, horregatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, akatsa lanaren harrera egin eta gero aurkitu bada ere.

Akatsa duten edo kontratuko baldintzak zorrotz betetzen ez dituzten obra unitateak, hala ere onargarriak direla uste badu obra zuzendariak, onartzeko proposa diezaiokete Administrazioari, prezioetan beherapena eginda. Kasu horretan, Administrazioak ezarritako prezio beherapena onartzera behartuta dago kontratista, edo, bestela, nahiago badu, gaizki dauden obra unitateak desegin eta berriz eraiki beharko ditu, bere kontura eta kontratuko baldintzen arabera.

6. Behin-behineko instalazio eta obrek atxikitako tokiak obraren aurretik zegoen moduan utzi beharko dute enpresa kontratistek.
7. Lanak egiteko, enpresa kontratistek lantalde eta langile egokiak erabili behar dituzte, lan eta espezialitate bakoitzak eskatzen dituen premiei erantzuteko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

8. Obrak egiteko behar den energia elektrikoa kontratisten kontura da, eta horrek jarri beharko ditu behar diren lineak.
9. Enpresa kontratistek bere kontura egin beharko dituzte bulegoetarako eraikinak, biltegiak, txabolak, sarbide postak, zerbitzu bideak eta behar diren gainerako gauzak. Eta beraian artean koordinatu beharko dira bi enpresentzat egokiak eta beharrezkoak direnak erabiltzeko.
10. Obra amaitzean edo aurretik, enpresa kontratistek bulegoetarako eraikinak, biltegiak, txabolak, sarbide postak, zerbitzu bideak eta behar diren gainerakoak desmuntatu eta kendu egin beharko dituzte, eta baita ere, tresnak, materialak eta abar. Kendu ondoren, hauek erabilitako lekuak garbituko ditu, guztiz garbi eta obra-hondakin gabe utziaz.
11. Behin-behineko instalazio eta obrek atxikitako tokiak obraren aurretik zegoen moduan utzi beharko dute kontratistek.
12. Behar bezain garbi izan behar ditu obra barruko nahiz kanpoko gune guztiak, eta soberakinak eta hondakinak ebakuatu behar dituzte.
13. Kontratistak behartuta daude bide publikoak libre eta egoera onean uztera, eta behar adina lan egin behar ditu oinezkoak eta ibilgailuak obrak irauten bitartean arazorik gabe ibil daitezen. Obren eragina jasaten duten zerbitzuei dagozkien jarduketak Obra Zuzendaritzaren agindupean egingo dira, hartara trafikoaren afekzioak ahalik eta txikiak izan daitezen eta erabiltzaileen bide segurtasuna bermatu dadin. Bereziki, obrak egin bitartean erabiltzen diren herri bideak eta sarbideak erabilera baldintza egokitan mantendu beharko dira, eta bideen garbitasuna eta erabiltzaileen segurtasuna zaindu beharko dira.
14. **Kontratistek aseguru kontratu bat eduki beharko dute kontratua burutzeko epe osoan (luzapenak barne) eta bermealdian (gehikuntzak barne), kontratua buruzetik hirugarrenei edo obrari eragin dakizkiekeen kalteen erantzukizuna estaltzeko;** Hori dena kontratua sinatu eta gehienez hilabete batean egiaztatu beharko dute, jatorrizko poliza eta dagozkion primen ordainagiriak aurkeztuz edo aseguru etxearen ziurtagiri egokiak aurkeztuz. Atal honetan aipatu den edozein eskakizun ez egiaztatzea kontratua suntsitzeko arrazoia izango da, betebeharrak hau, izatez, kontratuaren funtsezko betebeharrak bat delako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 223 g) artikuluan aurreikusita dagoenez.
15. Kontratisten betebeharra da Administrazioari jakinaraztea nortasun juridikoari eragin lekiokkeen edozein aldaketa, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da datuak egiaztatu arte.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- 16.** Obra gauzaten den bitartean erabiltzen diren kartel, errotulu, ohar eta seinale guztiek erkidegoko bi hizkukntza ofizialetan idatziko dira eta ezingo dute hizkuntzaren erabilera sexistarik egin; halaber, irudi sexitak erabiltzea debekatzen da.
- 17.** 250 langiletik gorako plantilla duten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren diseinua eta aplikazio eraginkorra egiaztatu beharko dute.
- 18.** Baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 212. artikuluan zehazten den zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorra, bete ez denaren arabera izango da, proportzio irizpide baten bidez.

19. KLAUSULA.- KONTRATISTAK LAN, GIZARTE SEGURANTZA ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK

1.– Kontratistek lan arloan, gizarte segurantza arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden lege, arau eta hitzarmen guztiak bete behar dituzte. Bereziki, Kontratista orokorrak (1. lotea) bete beharko du raikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboan edo, hala gertatuz gero, berrikusitako hitzarmen kolektiboetan jasotzen diren lan baldintzak, eta berak izango du gerta litezkeen lan istripuei dagokien erantzukizun guztia. Hain zuzen ere, zuzen, zorrotz eta bere kontura bete behar du Segurtasun eta Osasun Plana, eraikuntza obretan segurtasun eta osasuneko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan eta agiri honetan xedatutakoaren arabera idatzia eta onartua izan behar duena. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango kontratistak ez baditu betebeharrak horiek betetzen.

2.– Kontratistek, orobat, zuritu beharko dute, dagozkion datuak azpikontratatuak enpresa orori eskatu eta gero, ezen enpresa azpikontratatuak ere, obrak gauzatzean, lan eta gizarte segurantza arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituela eta, zehazkiago, Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta laneko segurtasun eta osasuneko betebeharrak guztiak aplikatzen dituela.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

3.– Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa esleipendunen konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskaintako prezioan sartuta egongo dira.

4.– Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren arabera, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10.

20. KLAUSULA.- ERAIKITZEKO ETA ERAISTEKO HONDAKINEN ARLOKO BETEBEHARRAK

1. Lanak hasi baino lehen, obra egingo duen pertsona fisiko edo juridikoak jabeari plan bat aurkeztu beharko dio, obra egiterakoan sortuko diren eraikitze eta eraisteko hondakinekin zerikusia duten eskakizunak nola beteko dituen azaltzen duena, batez ere Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen Egoizpena eta Kudeaketa arautzen duen 112/2012 Dekretuak eta 2008ko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak, eraikitze eta eraisteko hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzekoak, 4.1 eta 5. artikuluetan jasotakoak.
2. Plana onartu ondoren, obra kontratua osatzen duten agiriei gehituko zaie.
3. Baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 212. artikuluan zehazten den zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik.
4. Zigorra, bete ez denaren arabera izango da, proportzio irizpide baten bidez.

21. KLAUSULA.- TRAFIKOAREN GAINKO ERAGINA ETA BIDE SEINALEAK.

Nolanahi ere, enpresa kontratistek Astigarragako Udaleko obra eta zerbitzuak sailari eta udaltzaingoari jakinarazi behar dizkiote obrak direla-eta trafikoan egin beharreko etenak edo aldaketak, eta udal-zerbitzuek trafikoarekiko afektazioak minimizatze eta oinezkoen segurtasuna ziurtatzeko ezartzen dituzten arauak bete beharko dituzte nahitaez.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

22. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Errotulu, ohar, seinale eta bestelako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Esleipendunek, kontratua indarrean dagoen bitartean, hizkuntzaren erabilera sexistarik egingo inongo euskarri idatzi edo digitalean, eta, gainera, datuak sexuaren arabera bereizi beharko ditu pertsonen buruzko edozein estatistiketan, guztia 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 2.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, bertan aipatzen baitira gorde beharreko printzipio orokorrak.

Bestalde, kartel, ohar eta antzerakoak, erkidegoko bi hitzkuntza ofizialetan idatzi beharko dira.

Hizkuntza baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 212. artikuluan zehazten den zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez exekutatzegatik.

Zigorra ez-betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, proportzio irizpide bati jarraituz.

23. KLAUSULA.- ZIGORRAK EPEAK EZ BETETZEGATIK

Esleipendunek kontratuaren lote edo zati bakoitza gauzatzeko epeak betetzera behartuta daude. Epe hauek zunketa akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasiko dira.

Kontratua gauzatzeko epeak betetzen direla bermatzeko, Sektore Publikoen Kontratuen legearen Testu Bateraginaren arabera, zigorrak ezarriko dira.

Ezarriko diren zigorrak, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginak 212.4 artikuluan arabera ezarriko dira: atzeratutako egun natural bakoitzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko zigorra.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

24. KLAUSULA.- BESTE ZIGOR BATZUK .

Kontralistek ez badute ondo gauzatzen kontratuaren xedea edo plegu hauek, ondo gauzatzeko behar diren bitarteko pertsonalak edo materialak jartzeko konpromisoa ez badu betetzen, eskaintzak baloratzeko oinarritzat hartu ziren irizpideetakoren bat ez badu betetzen edo, bere erruz ez baditu gauzatzen osorik kontratuan definitutako lan guztiak, orduan kontratazio organoak erabaki dezake urraketaren proportzioan egongo den zigor ekonomiko bat jartzea, kontratuaren aurrekontuaren % 10era hel daitekeena.

Besteak beste honako hauek ezarriko dira: azpikontratazio arloa ez betetzeagatik, kontratua gauzatzekoan bete beharreko hizkuntza baldintza; lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan dituen betebeharrak edo eraikitze eta eraisteko hondakinen arloko betebeharrak ez betetzea.

25. KLAUSULA.- OBRA KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua burutu ostean, kontratuan aldaketak egin ahal izango dira baina soilik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 105., 106., 107., 108., 219. eta 234. artikuluetan ezarritako baldintzak eta eskakizunak ez ezik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 158-162 artikuluetan eta Estatuko Obrak Kontratazeko Administrazio Klausula Orokorren Pleguaren 59. eta 62. artikuluetan xedatutakoa betez gero, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginari aurka egiten ez badiote. Aldaketa horiek ezin izango dituzte kontratuaren oinarritzko baldintzak eraginpean hartu.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 106. artikuluan agindutakoari jarraiki, kontratua aldatu ahal izateko, aldaketa eragin duten arrazoiek interes publikokoak edo ustekabekoak izan beharko dute nahitaez.

Kontratu hau aldatzeko arrazoitzat ezarri dira honako hauek:

- *Ustekabekoak agertzea eta, horien ondorioz, proiektuan zehaztutako eraikuntza-soluzioak aldatu behar izatea*
- Obra-proiektuan agertzen ez diren eraikuntza-soluzioak edo materialak erabili behar izatea ezinbestekotzat jotzea.

Aldaketa horiek aldebiko prozeduraren bidez izapidetuko dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 211. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta kontratuaren prezioaren % 20koak izango dira, gehienez.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Kontratazio-organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 156. artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatu beharko dira.

Klausula honetan aurreikusi ez diren aldaketak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 107. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat dela behar bezala arrazoitzea.

Aldaketaren eraginez obra-unitateak ezabatzen edo murrizten badira, kontratistak ez du batere kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira, edo aldaketa horien ezaugarriak ezberdinak badira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 234. artikuluan agindutakoa bete beharko da.

Hala badagokio, ezarri beharreko prezio berriak finkatzeko, aplikatu behar diren material-osagaien, lanekuaren eta makineriaren kostuak honako hauek izango dira: kontratuan oinarritzotzat hartzen den onartutako proiektuaren aleko prezioen deskonposaketetan zehaztutakoak edo, hala badagokio, proiektuan aplikatu direnak, betiere data horretan indarrean daudenak.

Proiektuko prezioetarako erabakitako kostu-egituraren arabera finkatuko dira deskonposatutako aleko prezio berriak. Hortaz, prezioak kalkulatu eta deskonposatzeko, osagaien kopuruak finkatzeko, eta zuzeneko kostuei egoztekoak diren kontzeptuak eta osagaien prezioetan aintzat hartu beharreko kontzeptuak zehazteko, proiektuko prezioen kasuan aplikatzen diren irizpide berdinak aplikatuko dira. Horrenbestez, prezio berriak landu behar direnean proiektuko prezioen deskonposaketetan edo Eranskinetan agertzen diren makineria eta lanekuaren errendimenduak eta materialen kopuruak hartuko dira kontuan, baldin eta aplikatzekoak badira eta akatsik ez badute. Zeharkako kostuei dagokienez, onartutako proiektuaren ehuneko berdina aplikatu beharko da.

Administrazioak prezioak finkatutakoan, kontratistari entzunaldia emango zaio gutxienez hiru egun baliodunaz. Kontratistak ez baditu onartzen finkatutako prezioak, kontratazio-organoak aukera izango du obra horiek, berak finkatutako prezioetan, beste enpresaburu batekin kontratatuzko, edo obra horiek zuzenezuzenean berak gauzatzeko. Dena den, Administrazioari eraginpeko obraren zatia egikaritzea ahalbidetuko dioten beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu lehenengo esleipendunak, eta Administrazioari kalte-ordaina eman beharko dio betebehar hori ez betetzeak eragindako kalteengatik.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Kasu horretan, Administrazioak, kontratista nagusiari entzun ostean, hartu beharreko neurri eta jarraibideak erabakiko ditu, baita neurri horien betetzea egiazteko epea ere.

Kontratu-aldaketaren ondorioz kontratuaren prezioa aldatu egin bada, bermea egokitu egingo da kontratistari aldatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean, betiere aldatutako prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan.

Zuzendaritza Fakultatiboaren ustez proiektua aldatzea ezinbestekoa delarik, kontratazio-organoak baimena eman beharko dio dagokion espedientea abiarazteko; espediente hori presazko izaeraz gauzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 234.3 artikuluan aurreikusitako jardunak eginez.

Kontratu-aldaketak kontratua bertan behera uztea eragin ahal izango du baina soilik aldaketaren ondorioz kontratatutako obraren zenbait zati edo obra osoa egikaritzen jarraitzea ezinezkoa bada.

26. KLAUSULA.- OBRAREN HARRERA ETA BERME ALDIA.

Kontratatistak kontratua bete duela esango da, xedea osorik gauzatu duenean, kontratuan ezarri bezala, eta Administrazioa ados dagoela.

Kontratuko obrak amaitutakoan, obrak egoera onean eta ezaugarrietan aurreikusi bezala baldin badaude, administrazioaren ordezkariak hartu egingo ditu, harrera-akta egingo da, eta berme aldia hasiko da.

Obrak hartzeko moduko egoeran ez badaude, ordea, hori aktan jasoko da eta obra zuzendaritzak aurkitutako akatsak azalduko ditu eta konpontzeko jarraibide zehatzak emango ditu, horretarako epea jarrita. Epe hori amaitzerako kontratatistak ez baditu konpondu, beste epe luzaezin bat emango zaio edo kontratua suntsituztat joko da.

Obrak hartzeko, kontratatistak obretan erabilitako eremu guztia garbitu beharko du, seinaleak, enpresaren publizitatea eta obra hondar guztiak kenduz, eta, hondatuta gelditu bada, hasieran zegoen moduan utzi beharko du.

Urtebateko berme epea ezartzen da, obraren behin -behineko onarpena egin den egunetik kontatzen hasita. Epe horretan Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 167. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bermearen epea bete baino 15 egun lehenago, obraren zuzendari fakultatiboak edo udal zerbitzu teknikoak -ofizioz edo kontratistaren eskariz-, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du. Hori aldekoa balitz, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango -Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 236. artikulua dioena izan ezik-, bermea itzuli edo kitatu egingo da, kontratuaren likidazioa egingo da eta, hala badagokio, geratzen diren betebeharrak ordainduko dira. Txostena ez balitz aldekoa eta ikusitako akatsak obrak egikaritzeko egindako hutsegiteengatik balira eta ez eraikitakoaren erabileragatik, bermearen epearen barruan, zuzendariak kontratistari dagozkion jarraibideak emango dizkio eraikitakoa behar bezala konpontzeko, epe bat emango dio horretarako, eta bitarte horretan obraren kontserbazioaz arduratzen jarraituko du, inongo ordainik jasotzeko eskubiderik gabe bermearen epea zabaltzearen truke.

Obrak hondoa jotzen badu bermearen epea iraungi ondoren, kontratistak kontratua bete ez duelako eta eraikuntzak akats ezkutuak dituelako, kalte-ordainen erantzule izango da kontratista obraren harrera egiten denetik 15 urtera arte.

Epe hori bete eta kalte edo galerarik agertu ez bada, guztiz amaituko da kontratistaren erantzukizuna.

27. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 223, 237 eta 238. artikuluetan aurreikusitakoak, 225 eta 239. artikuluetan aurreikusitako ondorioekin, eta, aldi berean, kontuan edukita Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamenduak 109. artikuluan eta hurrengoetan eta 172. artikuluan ezarritakoa.

Gainera, kontratazio organoak kontratua suntsitu dezake obra egiteko ezarritako epe orokorrean edo partzialen batean berandutzen bada, edo epe partzialetan garaiz ez ibiltzeak epe orokorra ezingo duela bete pentsarazten duenean zentzuz, betiere kontratazio organoak ez badu erabakitzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 212.4 artikuluan xedatutako zigorrak jartzea.

Hala ere, atzerapen zigorra kontratuko prezioaren % 5aren multiploa denean, kontratazio organoak kontratua suntsitzea edo jarraitzea erabaki dezake, zigor berriak jarritz.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira agiri honetan edo kontratuan funtsezko betebeharrak gisa ezarritakoak, Sektore Publikoko



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Kontratuen Legearen testu bategineko 223.f) artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Kontratua suntsitzeko Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamenduko 109. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dira.

28. KLAUSULA.- UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagozko hainbat eskumen, hala nola kontratua interpretatzea, kontratuaren betearazpenak eskaintzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, betiere mugen barruan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako eskakizun eta ondorioei jarraiki.

Hartarako emandako erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

29. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza Orri honetan esanbidez aurreikusi ez denari dagokionez, honako hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan:

- 1- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilea.
- 2- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- 3- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, apirilaren 21eko 11/99 Legeak aldatu zuena, eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuena.
- 4- Tokiko administrazio-kontratazioa arautzen duten eta haren eremuan aplikatu daitezkeen bestelako xedapenak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

30. KLAUSULA.- ESKUMENENKO JURISDIKZIOA

Kontratuen interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta eraginei buruz sortzen diren auzigaiak kontratazio-organoak ebatziko ditu; organo horren ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute eta Administrazioarekiko Auzibidea irekiko dute, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko Legeari jarraiki.

Astigarragan, 2018ko urtarrilaren 22an.

Kontxi Urdanpilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

I. eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia

Erantzukizunpeko adierazpena, ordezkatzen duen enpresak ezta haren kide bakar batek ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarrita dagoen debeku bakar bat ere ez dutela egiaztatuz.

..... jaunak/andreak,
(helbidea:; PK:
NAN:; telefonoa:; nire gaitasun juridikoaren eta
jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean,
(edo)
jauna/andrea (helbidea:; PK:
NAN:; telefonoa:) ordezkatuz,
(*pertsona fisikoa edo juridikoa den arabera*)

DEKLARATZEN DUT:

1.- EZ gaituztela kondenatu epai irmoaren bidez zilegi ez den elkartearen, nazioarteko merkataritza-transakzioetan ustelkeriaren, influentzia-trafikoaren, funtzionario-eroskeriaren, iruzurren eta legearen aurkako ordainarazpenaren delituengatik, foru-ogasunaren eta gizarte-segurantzaren aurkako delituengatik, langileen eskubideen aurkako delituengatik, bidegabeko eralgitzeagatik eta errezibitzeagatik eta antzeko jokabideengatik, ingurumena babesteari lotutako delituengatik, edota ez gaituztela kondenatu lanbidean, ogibidean, industrian edo merkataritzan aritzeko desgaitzuntza bereziko zigorrera.

2.- EZ dutela eskatu borondatezko konkurtso-deklarazioa, edozein prozeduratan ez direla kaudimengabetzat hartu eta konkurtso-egoeran ez daudela, konkurtsoan hitzarmen batek efikazia eskuratu duenean salbu, esku-hartze judizialari lotuta ez daudela edo ez dituztela desgaitu 22/2003 Lege Konkurtsalaren arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarrirako desgaitzuntza-epea amaitu gabe egonik.

3.- EZ dutela epai irmoaren bidezko zigorra jaso honako arlo hauetan **arau-hauste** astuna egiteagatik:

- merkatu-diziplinaren arloa,
- arlo profesionala,



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- **laneratzearen eta aukera-berdintasunaren eta pertsona desgaituen diskriminaziorik ezaren arloan,**
- lan-arloan, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-haustek barne, 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako lan-arloko arau-hausteei eta zehapeni buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera, baita testu beraren 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste astuna egiteagatik eta 7.13 artikuluan aurreikusitakoagatik, hau da, **Langileen Estatutuak edota aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak berdintasun-planen alorrean ezartzen dituzten betebeharrak ez betetzeagatik,**
- ingurumen-arloa

4.- EZ dutela faltsutzerik egin 146.1.c) artikulua aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpena egiterakoan edota bere ahalmen edo kaudimenari buruzko beste edozein datu ematerakoan, edota 70.4 artikuluan eta 330. artikuluan aurreikusitako informazioa jakinarazteko betebeharraren ez-betetzetik ez duela egin berari egozteko modukoa den arrazoiren batengatik.

5.- EZ dagoela barne hartuta Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen interes-gatazkak arautzeari buruzko apirilaren 10eko 5/2006 Legearen edota Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko *53/1984 Legearen kasuetako bakar batean ere, edota* Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargu bat dela, lege horretan ezarritako terminoetan.

6.- Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen interes-gatazkak arautzeari buruzko apirilaren 10eko 5/2006 Legearen 18.6 artikulua aipatzen duen ez-betetzeagatik «Estatuko Aldizkari Ofizialean» agertu den inolako pertsonarik ez dutela kontratatu.

7.- EZ dutela eragin, errudun deklaratu dituzten kausarengatik, Administrazio Publiko batekin sinatutako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa.

8.- EZ dutela edozein Administrazio Publikorekin kontratatzeko debeku bat hautsi.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

9.- EZ dagoela administrazio-zigor baten indarrez ezarritako kontratatzeko debeku baten eraginpean, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean edota Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoaren arabera.

10.- EZ duela modu desegokian erretiratu bere proposamena edo hautagaitza esleipen-prozedura batean, edota ez duela eragotzi kontratua bere alde esleitzea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 151.2 artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik aipatzen den epearen barruan, dolua, errua edo zabarkeria tarteko.

11.- EZ dituela bete gabe utzi Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 118. artikuluan adierazten denaren arabera ezarritako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak, ez-betetze hori baldintza-agirietan edo kontratuan arau-hauste astun gisa definitu bada lege hau garatzeko xedapenen arabera, eta enpresariaren dolua, errua edo zabarkeria baldin badago.

Eta dagozkion ondorioetarako horrela jasota gera dadin, adierazpen hau egiten eta sinatzen dut.

....., 20.... koaren(e)an.

Zigilua eta Sinadura



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

II. eranskina: 1. Loterako proposamen-ekonomikoaren eredia (B gutun-azala)

Nik,
 jaunak
 (helbidea:
PK:.....,
 NAN:, telefono-zenbakia:, eta
 posta elektronikoko helbidea:) prozedura osoa Udalar
 jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe
 oso izanik, nire izenean (edo jauna/andrea PK:
, telefono-zenbakia:, eta NAN edo IFK:
 -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari
 gisa), KALE NAGUSIKO SANEAMENDUA –1. LOTEA-, kontratatzeko
 Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1.) Zerbitzu hori honako prezio honen truke betearazteko konpromisoa hartzen dut:

Kontratuaren lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE	Baja zifra absolututan	Baja (%)
23.975,42 Euro			

2.- Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabeEURO da.

3.- Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe,euroko baja da, hots, %

4.- Kontratua esleitzen badidate, eskatutako polizan eta kontratuan eskatzen diren berme osagarrien ekarpena egiteko konpromisoa hartzen dut.

5.- Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak ekarri edo atxikitze konpromisoa hartzen dut; horretarako, betebeharrak hori onartzen dut eta betebeharrak hori funtsezkoa da; era berean, konpromisoa hartzen dut zerbitzu osoa egindako eskaintzaren arabera egikaritzeko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

6.- Konpromisoa hartzen dut eskaintza ekonomikoak egiten diren egunean Kontratazio Mahaiari emateko, eskaintza ekonomikoari dagokion posta elektronikoko mezua ireki baino 5 minutu lehenago, mezu hori irekitzeko behar diren segurtasuneko gakoak edo digituak.

Sinadura



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

II. eranskina: 2. Loterako proposamen-ekonomikoaren eredia (B gutun-azala)

Nik,
 jaunik
 (helbidea:
PK:.....,
 NAN:, telefono-zenbakia:, eta
 posta elektronikoko helbidea:) prozedura osoa Udalar
 jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe
 oso izanik, nire izenean (edo jauna/andrea PK:
, telefono-zenbakia:, eta NAN edo IFK:
 -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari
 gisa), KALE NAGUSIKO SANEAMENDUA -2. LOTEA-, kontratatze
 Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1.) Zerbitzu hori honako prezio honen truke betearazteko konpromisoa hartzen dut:

Kontratuaren lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE	Baja zifra absolututan	Baja (%)
26.843,88 Euro			

2.- Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabeEURO da.

3.- Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe,euroko baja da, hots, %

4.- Kontratua esleitzen badidate, eskatutako polizan eta kontratuan eskatzen diren berme osagarrien ekarpena egiteko konpromisoa hartzen dut.

5.- Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak ekarri edo atxikitze konpromisoa hartzen dut; horretarako, betebeharrak hori onartzen dut eta betebeharrak hori funtsezkoa da; era berean, konpromisoa hartzen dut zerbitzu osoa egindako eskaintzaren arabera egikaritzeko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

6.- Konpromisoa hartzen dut eskaintza ekonomikoak egiten diren egunean Kontratazio Mahaiari emateko, eskaintza ekonomikoari dagokion posta elektronikoko mezua ireki baino 5 minutu lehenago, mezu hori irekitzeko behar diren segurtasuneko gakoak edo digituak.

Sinadura